Teatro Gayarre Antzokia
22ª edición | 22. edizioa (2025)

CICLO

Grandes Intérpretes

INTERPRETATZAILE HANDIEN ZIKLOA

Quinteto de cuerdas de la Orquesta Filarmónica de Berlín & Miquel Àngel Tamarit (clarinete)

11 de marzo | Martxoak 11
Martes | Asteartea
19:00

GAYARRE ANTZOKIA UDAL FUNDAZIOA
FUNDACIÓN MUNICIPAL TEATRO GAYARRE

www.teatrogayarre.com

'La música es el único camino hacia lo trascendente'

***

'Musika da transzendenteranzko bide bakarra'.

*

Wolfgang Amadeus Mozart (1756-1791)



Programa

PARTE I / 1. PARTEA

C. M. v. Weber (1786-1826)
Andante y Rondo hungarés para viola y cuerdas, Op.35 J.79 [9' 30"]

Quinteto para clarinete in Si bemol mayor Op. [30']
I. Allegro
II. Fantasia. Adagio ma non troppo
III. Menuetto Capriccio. Presto. Trio
IV. Rondo. Allegro giojoso

INTERMEDIO / ATSEDENALDIA [15']

PARTE II / 2. PARTEA

W. A. Mozart (1756-1791)
Obertura de "Las bodas de Fígaro", ópera cómica KV492 [5']

C. M. v. Weber (1786-1826)
Romanza y Aria para soprano y viola de el "Cazador furtivo" [3']

P. Tchaikovsky (1840-1893)
Aria de Lenski "Kuda, Kuda" de Eugen Onegin para violonchelo y cuerdas [6, 30"]

G. Bottesini (1821-1889)
Fantasia de "Lucia di Lammermoor" de Donizetti para contrabajo y cuerdas [13' 30"]

P. Sarasate (1844-1908)
Fantasía sobre Carmen para violín y cuerdas [12']

Martes 11 de marzo de 2025, 19:00 horas
2025eko martxoak 11, asteartea, 19:00etan

QUINTETO DE CUERDAS DE LA ORQUESTA FILARMÓNICA DE BERLÍN & MIQUEL ÀNGEL TAMARIT (CLARINETE)

Berlingo Orkestra Filarmonikoko hari-boskotea eta Miquel Àngel Tamarit (klarinetea)



Intérpretes | Interpretatzaileak

En orden en imágenes de izquierda a derecha.
Argazkietan ordenean ezkerretik eskuinera.

Luiz Felipe Coelho (primer violín | lehen biolina)
Romano Tommasini (violín | biolina)
Wolfgang Talirz (viola | biola)
Stanislas Kim (violonchelo | biolontxeloa)
Gunars Upatnieks (contrabajo | kontrabaxua)

Miquel Àngel Tamarit (clarinete | klarinetea)

Introducción | Sarrera

La emblemática formación berlinesa es desde hace años una referencia en el panorama internacional de la música de cámara. Les acompañará el destacado clarinetista valenciano Miquel Àngel Tamarit con el que vienen trabajando desde 2018. Ofrecerán un programa romántico homenaje al célebre compositor de ópera alemán C.M. v. Weber con dos obras destacadas de la segunda mitad del s. XIX. Para completar, fuegos artificiales de virtuosismo de Bottesini y Sarasate además de guiños a Mozart y Tchaikovsky.

***

Berlingo talde enblematikoa erreferentzia da duela urte batzuetatik ganbera-musikaren nazioarteko arloan. Haiekin arituko da Valentziako Miquel Àngel Tamarit klarinete-jotzaile gailena -2018az geroztik boskotea berarekin aritzen da-. C.M. v. Weber alemaniar opera-konpositore ospetsuari omenaldia egiteko programa erromantikoa eskainiko dute -XIX. mendearen bigarren erdiko bi lan nabarirekin-, Bottesini eta Sarasateren birtuosismoaren su artifizialekin baita Mozart eta Txaikovskiri egindako keinuekin konbinatuta.

Notas al Programa | Programaren oharrak

En el último tercio del siglo XVIII, el clarinete adquirió gran protagonismo en las agrupaciones orquestales y camerísticas de la etapa final del Clasicismo. Fue Franz Wilhelm Tausch (1762-1817), virtuoso clarinetista de la famosa Orquesta de Mannheim quien sentó las bases de la escuela alemana de clarinete. Su timbre cálido y rico en

matices sedujo a **MOZART** (1756-1791) quien a partir de ese momento recurrió al nuevo instrumento de viento en todas las ocasiones en las que encontró la oportunidad. El idilio entre Mozart y el clarinete ofreció al mundo obras como su último Concierto o el Quinteto K.581. El genial compositor lo incorporó a las partituras de sus sinfonías vienesas y de sus óperas. En la Obertura de *Las Bodas de Fígaro*, otorgó al clarinete un papel destacado para recrear la profundidad de los sentimientos de los personajes, de las situaciones cómicas que se sucederán durante la ópera, en equilibrio magistral con el resto de las secciones de viento y el conjunto de la orquesta.

Además de su faceta como virtuoso instrumentista, Tausch desarrolló una intensa carrera como profesor. Y entre sus alumnos destacó Heinrich Joseph Bärmann (1784-1847) fundador en 1805 del Conservatorium der Blasinstrumente de Berlín. Bärmann coincidió en Munich con el joven **CARL MARIA VON WEBER** (1786-1826) y se hicieron grandes amigos. Weber, siguiendo los pasos del genial esposo de su prima Constanza, quedó fascinado por la maravillosa voz del clarinete de Bärmann y para él compuso en 1815 su Quinteto en Si bemol mayor op.34. Bärmann utilizaba ya un clarinete de diez llaves con el que conseguía un discurso melódico cálido y flexible, vivo y brillante, expresivo y rico en matices; y esto inspiró al compositor alemán, siempre interesado en explorar la tímbrica de cada instrumento.

El Quinteto para clarinete y cuerdas de Weber está influido por el estilo cantabile de la ópera de comienzos del siglo romántico, anunciando el triunfo melódico del Bel Canto. Es una partitura que presenta al clarinete como un solista y a las cuerdas como la base orquestal. Esto se percibe desde la introducción lenta del *Allegro* inicial, que contrasta temas ligeros y amables con momentos de energía dramática. La *Fantasía*, que lleva la indicación de *Adagio ma non troppo* es comenzada en tesituras graves por las cuerdas que sustentan la melodía del clarinete, de amplia inspiración y repleta de matices expresivos. De carácter brillante es el *Minuetto (Capriccio presto)* con sus efectos tímbricos asombrosos y el contraste con el *Trío*. El *Rondó Allegro giocoso* muestra la habilidad de Weber en el tratamiento de los ritmos; es ligero y aumenta su virtuosismo cuando se acerca el final.

La maestría de Weber con el manejo de los instrumentos de la orquesta fue destacada por mú-

sicos posteriores como Berlioz o Wagner, profundamente impresionados por su exhuberancia en los contrastes tímbricos al servicio de la expresión de la melodía o del texto dramático en el caso de las obras operísticas. Fue la música de escena su gran pasión, como le había ocurrido a Mozart. El mayor de sus éxitos fue sin duda *Der Freischütz*

[El cazador furtivo], estrenada en Berlín en 1821, iniciando el gran camino de la ópera romántica alemana que Wagner retomará años después. La magia del bosque alemán se encuentra en las inspiradas melodías y en la colorista paleta de timbres orquestales. A esta ópera pertenece el aria que el personaje de Ännchen canta en el tercer acto *[Einst traumte meiner sel'gen Base]* en la expresiva voz de la viola.

También para la viola compuso Weber el Andante y Rondó húngaro Op.35 J.79, dedicada a su hermano Fritz, violista. El compositor adaptó la partitura unos años más tarde para fagot y orquesta, versión que alcanzó mucha más fama que la original para viola. Como habían hecho Mozart o Haydn algunos años antes, Weber se acercó al exotismo del estilo húngaro, muy de moda en las calles de Viena o Munich a comienzos del siglo XIX. Con un encanto melódico propio del compositor alemán, es una especie de pequeño concierto para viola y orquesta de cámara que prescinde de un primer movimiento y se queda únicamente en dos movimientos. En las diferentes variaciones del tema, el equilibrio entre la exhibición de la viola solista y el carácter rítmico y melódico del quinteto de cuerda, acompaña a los oyentes por el camino de una danza popular llena de encanto y alegría.

Mientras Weber sentaba las bases de la ópera alemana del Romanticismo, el Bel Canto italiano llenaba los escenarios europeos e inspiraba a compositores y oyentes. Uno de los directores de orquesta más respetados del repertorio operístico del XIX fue **GIOVANNI BOTTESINI** (1821-1889) que llevó las principales óperas italianas por Europa, Cuba, México y Estados Unidos. Fue, además, especialmente conocido en la actualidad por

ser el primer virtuoso del contrabajo. Este instrumento tardó más que sus compañeros de cuerda frotada en llegar al repertorio solista, con las dificultades que encuentran sus intérpretes para recorrer el larguísimo diapasón con agilidad pisando unas cuerdas considerablemente gruesas. Bottesini contribuyó decisivamente a crear un repertorio para contrabajo solista y a facilitar el uso del instrumento en las partituras orquestales de la época.

Una costumbre de Bottesini era interpretar fantasías sobre las óperas que dirigía para entretener al público durante el tiempo que duraban los descansos entre actos. La *Fantasía* sobre temas de *Lucía di Lammermoor de Donizetti*, para contrabajo y cuerdas, juega con los recursos de la coloratura vocal del bel canto que tanto impresionó en la primera mitad del siglo XIX. Resulta sorprendente el efecto sonoro del contrabajo, con sus graves profundos, cantando las largas y adornadas frases del canto operístico de Donizetti, caminando a través del virtuosismo con elegancia y sin perder su carácter expresivo.

La difusión de la ópera tuvo en los virtuosos de instrumentos como el violín, la flauta o el violonchelo, a grandes aliados. El público quería escuchar las arias más celebradas y admirar la sorprendente técnica de sus intérpretes. Estas *Fantasías* eran piezas libremente inspiradas en los temas principales de alguna ópera, el vehículo perfecto para encumbrar a los ejecutantes más hábiles y virtuosos. Las versiones para un instrumento y acompañamiento orquestal o camerístico fueron muy populares. El sentimiento de dolor por el amor perdido y el poder de la amistad impregna el aria *Kuda, kuda viudalilis* de Lensky, en el segundo acto

Eugene Onegin de **TCHAIKOVSKY** (1840-1893) que fue transcrita para violonchelo y orquesta.

Pero sin duda, una de las fantasías de ópera más célebres es la que compuso **PABLO SARASATE** (1844-1908) en 1881 sobre temas de Carmen de Bizet. Fascinado por la vibrante atmósfera española y su atractivo dramático, nuestro violinista compuso una página brillante y elegante que estrenó en París en 1883. La parte para violín que escribió Sarasate discurre en sus movimientos [Aragonesa, Habanera, Interludio, Seguidilla y Danza Gitana] por grandes dificultades en el uso del arco y del pizzicato, con exuberantes y rápidos arpegios que recorren toda la tesitura del instrumento solista, sin abandonar el carácter pasional y romántico de la ópera de Bizet.

Mar García

***

XVIII. mendearen azken herenean, klarineteak protagonismo handia hartu zuen klasizismoaren azken etapako orkestra- eta ganbera-taldeetan. Franz Wilhelm Tausch (1762-1817) Mannheimeko Orkestra entzutetsuko klarinete-jotzaile birtuosoa izan zen klarinetearen Alemaniako eskolaren oinarriak ezarri zituena. Instrumentuaren tinbre bero eta ñabarduretan aberatsak **MOZART** (1756-1791) erakarri zuen, eta une horretatik aurrera haize-instrumentu berria baliatu zuen aukera aurkitu zuen abagune guztietan. Mozarten eta klarinetearen arteko idilioak hainbat lan eskaini zizkion munduari, hala nola haren azken *Kontzertua* edo *K.581 kintetoa*. Jeinuzko konpositoreak bere operetako eta Vienako sinfonietako partituretan sartu zuen. *Figaroren ezteiak* lanaren oberturan, eginkizun nabarmena eman zion klarineteari, pertsonaien sentimenduen, operan gertatuko ziren egoera komikoen sakontasuna birsortzeko, gainerako haize-atalekin eta orkestra osoarekin maisutasunezko orekan.

Instrumentista birtuoso moduan izan zuen alderdiaz gain, Tauschek ibilbide sendo eta handia egin zuen irakasle-lanetan. Bere ikasleen artean Heinrich Joseph Bärmann (1784-1847) nabarmendu zen, 1805ean Berlingo Conservatorium der Blasinstrumente sortu zuena. Bärmannek **CARL MARIA VON WEBER** (1786-1826) gaztearekin batera kointziditu zuen Munichen, eta lagun minak egin ziren. Weber, Constanza lehengusuaren jeinuzko senarraren pausoei jarraituz, liluratuta gelditu zen Bärmannen klarinetearen ahots miragarriarekin, eta harentzat ondu zuen 1815ean *Si bemol maiorreko kintetoa* Op.34. Bärmannek hamar giltzako klarinetea erabiltzen zuen jada, eta harekin diskurtso melodiko bero eta malgua lortzen zuen, bizia eta distiratsua, adierazkorra eta aberatsa ñabarduretan. Eta horrek alemaniar konpositorea inspiratu zuen, musika-tresna bakoitzaren tinbrika esploratzeko interesa baitzuen.

Weberren *Klarinete eta harietarako kintetoak* mende erromantikoaren hasierako operaren cantabile estiloaren eragina du, bel cantoaren arrakasta melodikoa iragarriz. Partitura horretan, klarinetea solista moduan aurkezten da eta hariak orkestraren oinarria dira. Hasierako *Allegro*-aren sarrera geldotik hautematen da hori, konposizio arinak eta adeitsuak kontrastatzen dituena energia dramatikoko uneekin. *Fantasia*, *Adagio ma non troppo*-ren oharra daramana, tesitura baxuetan hasiko dute klarinetearen melo-

diari eusten dioten hariek, inspirazio zabalekoa eta ñabardura adierazkorrez betetakoa den melodiari. *Minuetto-a (Capriccio presto)* bikaina da, bere tinbre-efektu harrigarriekin eta *Trio*-arekin kontrastean. Rondo *Allegro giocoso*-ak Weberrek erritmoen tratamenduan zuen trebetasuna erakusten du; arina da eta bere birtuosismoa areagotzen du amaierara gerturatzen denean.

Ondorengo musikariek, adibidez, Berliozek eta Wagnerrek, nabarmendu zuten orkestrako musika-tresnak erabiltzean Weberrek zuen maisutasuna, sakon harritzen baitzituen melodiaren edo, operako lanen kasuan, testu dramatikoaren adierazpenaren zerbitzura jartzen zituen kontraste tinbrikoetan erakusten zuen oparotasunak. Eszena-musika bere pasio handia izan zen, Mozarti gertatu zitzaion moduan. Bere arrakastetako handiena, zalantzarik gabe, *Der Freischütz [Isileko ehiztaria]* izan zen, Berlinen estreinatua 1821ean. Urte batzuk geroago Wagnerrek berriro hartuko zuen Alemaniako opera erromantikoaren bide handiari ekin zion. Alemaniako basoaren magia aurki daiteke melodia inspiratuetan eta orkestrako tinbreen paleta koloretsuan. Hain zuzen, opera horretakoa da hirugarren ekitaldian Ännchen pertsonaiak abesten duen aria *[Einst traumte meiner sel'gen Base],* biolaren ahots adierazkorrean.

Halaber, biolarako konposatu zituen Weberrek *Andante* eta *Rondo hungariarra* Op.35 J.79, Fritz anaia biola-jotzaileari eskainia. Musikagileak partitura egokitu zuen handik urte batzuetara fagot eta orkestrarako, eta bertsio horrek biolarako jatorrizkoak baino askoz ere ospe handiagoa lortu zuen. Urte batzuk lehenago Mozartek eta Haydnek egin zuen moduan, Weber Hungariako estiloaren exotismora gerturatu zen, oso modan zegoena Viena eta Municheko kaleetan XIX. mendearen hasieran. Alemaniar konpositoreak berezko zuen xarma melodikoarekin, biola eta ganbera-orkestrarako kontzertu txiki antzekoa da, aurreneko mugimendurik gabea eta soil-soilik bi mugimendu dituena. Konposizioaren bariazio desberdinetan, biola solistaren erakustaldiaren eta hari-boskotearen izaera erritmikoaren eta melodikoaren arteko orekak lagun egiten die entzuleei liluraz eta alaitasunez betetako herri-dantza baten bidean.

Weberrek erromantizismoko Alemaniako operaren oinarriak jartzen zituen bitartean, Italiako bel cantoak Europako agertokiak betetzen zituen eta konpositoreak eta entzuleak inspiratzen zituen. XIX. mendeko opera-errepertorioko orkestra-zuzendari errespetatuenetako bat **GIOVANNI BOTTESINI** (1821-1889) izan zen, zeinak Italiako opera nagusiak eraman zituen Europara, Kubara, Mexikora eta Ameriketako Estatu Batuetara. Gainera, bereziki ezaguna izan zen aktualitatean kontrabaxuaren lehen birtuosoa izateagatik. Hari igurtziko beste kideek baino denbora gehiago behar izan zuen instrumentu horrek errepertorio solistara iristeko, nabarmen lodiak diren hariak zapaltzen interpretatzaileek bizkortasunez diapasoi luzea egiteko izaten dituzten zailtasunekin. Bottesinik era erabakigarrian lagundu zuen kontrabaxu solistarako errepertorio bat sortzen eta garaiko orkestra-partituretan musika-tresna horren erabilera errazten.

Bottesinik ohitura zuen zuzentzen zituen operei buruzko fantasiak interpretatzea, ekitaldien arteko atsedenaldiek irauten zuten denboran ikus-entzuleak entretenitzeko. Donizettiren *Lucía*

di Lammermoor operako konposizioei buruzko *Fantasia*, kontrabaxu eta harietarako, XIX. mendearen lehen erdian hainbesteko harridura eragin zuen bel cantoaren ahots-koloraturaren baliabideekin jolasten da. Miresgarria da kontrabaxuaren soinu-efektua, behe-soinu sakonekin, Donizettiren opera-kantuaren esaldi luze eta apainduak abesten, birtuosismoan zehar ibiltzen dotore eta haren izaera adierazkorra galdu gabe. Operaren zabalkundeak musika-tresnen birtuosoengan, besteak beste, biolinaren, flautaren eta biolontxeloaren birtuosoengan, aliatu handiak izan zituen. Publikoak aria goraipatuenak entzun nahi zituen eta interpretatzaileen teknika harrigarria miretsi. Fantasia horiek operaren konposizio nagusietan libreki inspiratutako piezak ziren, jotzaile trebe eta birtuosoenak gailurrera eramateko ibilgailu ezin hobeak. Tresna baterako eta orkestra- edo ganbera-akonpainamendurako bertsioak oso famatuak izan ziren. Galdutako maitasunaren ondoriozko mina eta adiskidetasunaren ahalmena nagusitzen dira Lenskyren *Kuda, kuda viudalilis* arian, **TXAIKOVSKI**ren (1840-1893) *Eugene Onegin* bigarren ekitaldian, zeina biolontxelo eta orkestrarako transkribatu zen.

Baina, dudarik gabe, opera-fantasia ezagunenetako bat **PABLO SARASATE**k (1844-1908) 1881ean Bizeten *Carmen* operaren konposizioen gainean konposatu zuena izan zen. Espainiako atmosfera sutsuak eta haren erakarpen dramatikoak liluratuta, gure biolinistak orrialde bikain eta dotorea ondu zuen, eta Parisen estreinatu zuen 1883an. Sarasatek biolinerako idatzi zuen zatia bere mugimenduetan ibiltzen da [Aragonesa, Habanera, Interludio, Seguidilla eta Danza Gitana] zailtasun handietan arkuaren eta pizzicatoaren erabileran, instrumentu solistaren tesitura guztian ibiltzen diren arpegio oparo eta azkarrekin, Bizeten operaren izaera kartsua eta erromantikoa alde batera utzi gabe.

Mar García

Último concierto | Azkenengo kontzertua

Ciclo Grandes Intérpretes

Interpretatzaile Handien Zikloa

Midori (violín / biolina) & Özgür Aydin (piano / pianoa)
Martes 13 de mayo, 19:00
Maiatzak 13, asteartea, 19:00etan

Conoce nuestra programación completa aquí:
Ezagutu gure programazio osoa hemen:

TEATRO GAYARRE
Avda, Carlos III, 3. 31002 Pamplona
www.teatrogayarre.com

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

GAYARRE ANTZOKIA UDAL FUNDAZIOA
FUNDACIÓN MUNICIPAL TEATRO GAYARRE